


Euskal AEko finantzaz bestelako enpresen zorpetzea zortzi puntu jaitsi da azken bost urteotan

Finantza-errentagarritasuna hazi da, eta enpresa txiki eta ertainak eta finantzaz bestelako zerbitzuak nabarmendu dira

Besteren funtsen eta baliabide guztien arteko erlazioa agerian uzten duen ratioa da **zorpetze totala**. 2014an % 50,3koa izan zen Euskal AEko finantzaz bestelako enpresen multzoan, betiere EUSTATEk prestatutako datuen arabera. 2009koari dagokionez 8 puntu jaitsi zen. Ratio horrek azaltzen duenez, aktiboen erdiak baino zertxobait gehiagok besteren baliabideekin finantzatuta daude.

Nabarmena da enpresa handien estratua (249 pertsona enplegatu baino gehiago) 2014an izandako beherakada -2,9 puntu ehunekoan-; % 45,9ko zorpetze-ratioa lortu zen. Mikroenpresek (10 pertsona enplegatu baino gutxiago) eta enpresa txikiek (10 eta 49 pertsona enplegatu artean) 0,5 eta 0,8 puntuko beherakada dute ehunekoan, hurrenez hurren, eta horien zorpetze-ratioa % 48,9koa eta % 52,5koa da. Enpresa ertainen estratua (50 eta 249 pertsona enplegatu artean) da zorpetze-ratioa handitu duen bakarra, betiere 2013koarekin alderatuta. Ratio hori % 56,3koa da, aurreko urtekoa baino 1,1 puntu handiagoa.

1 grafikoa. Enplegu-geruzen arabera zorpetze guztiaren ratio-bilakaera. Euskal AE (%)



Iturria: Eustat. Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak


Sektore handien arabera, Eraikuntzak % 61,3ko zorpetze-ratioa du, Industriak % 49,3koa eta Merkatuko zerbitzuek % 48,8koa. Analisi zehatzagoa eginda, beste sektore hauek nabarmentzen dira: Bestelako zerbitzu pertsonalak(1) eta Ostalaritza. Horien zorpetze-artioa % 77,3koa eta % 73,2koa da, hurrenez hurren. Aurkako aldean

dago Ur-hornikuntza, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa sektorea, % 32,8ko ratioarekin.

Finantza-errentagarritasunak ematen digun informazioari esker, jakingo dugu enpresak bere jardueraren bidez eta ondare garbian oinarrituta lortzen duen batez besteko errentagarritasuna. 2014an % 3,8koa da, aurreko urtean baino bost hamarren handiagoa. Enpresa txikiek eta ertainek lortzen dute daturik onena (% 5,4 eta % 6,6, hurrenez hurren). Enpresa handiek lortzen dute daturik txarrena (% 2,2). Sektore handien arabera, Eraikuntzak % 1,8ko errentagarritasun negatiboko ratio izan da 2014an. Merkatuko zerbitzuek lortu zuten emaitzarik onena % 4,5eko ratioarekin, Industriak, berriz, % 4,1eko ratioa lortu zuen.

Errentagarritasun ekonomikoaren ratioa 2014an % 3,0koa izan zen. Ratio horrek enpresek haien aktibo guztietan oinarrituta lortzen duten batez besteko errendimendua adierazten du. Ratio horren bilakaera positiboa izan da enpresen multzoarentzat; izatez, % 2,8koa zen 2013an eta % 3,0koa da 2014an. Enplegu-mailen arabera, enpresa ertainek dute errentagarritasun-ratiorik handiena % 4,0koa. Aitzitik, mikroenpresek eta enpresa handiek izan dituzte errentagarritasun ekonomikoko ratiorik txikienak, bi estratuetan % 2,4rekin. Alde positiboan Telekomunikazioen sektorearen errentagarritasuna nabarmentzen da, % 6,5eko ratioarekin, eta alde negatiboan Bestelako zerbitzu pertsonalen sektorea nabarmentzen da -% 1,1eko ratioarekin.


2. grafikoa. Errentagarritasun ekonomiko eta finantza-errentagarritasunaren ratioak, jarduera-sektoreen eta enplegu-geruzen arabera. Euskal AE (%). 2014



Iturria: Eustat. Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak

Palanka-efektu finantzarioak aztertzen du enpresaren finantza-egiturak haren finantza-errentagarritasunean duen eragina. Alderdi hori positiboa da enplegu-estratu guztietan eta jarduera-sektore nagusietan, Eraikuntzan izan ezik.

3. grafikoa. Euskal AEko finantzaz besteko enpresen aktiboa eta pasiboa. 2014



Iturria: Eustat. Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak

Euskal AEko finantzaz bestelako enpresen multzorako zenbatetsitako ondarea % 0,1 hazi da 2014an, aurreko urtearekin alderatuta. 197.780 milioi eurotara iritsi da. 250 enplegatu baino gehiagoko enpresa handiak izan ziren kapitalean intentsiboenak 2014an, okupazioaren % 12,5ek metatzen baitzuen urte hartan ekonomiaren aktibo osoaren % 21,1. Mikroenpresek enpresa-ondarearen % 39,8 hartzen zuten langile landunaren % 43,0rekin. 10 eta 249 langile arteko gainerako enpresek aktiboaren % 39,1 hartzen zuten eta langile landunen % 44,5 ziren.

Sektoreen arabera banaketa eginez gero, agerian geratzen da Industriak Euskal AEn duen garrantzia. Egiazta daiteke aktiboaren % 39,9 industriaren sektoreari dagozkiola, eta enpleguaren % 26,8 hartzen duela. Haatik, Merkatuko zerbitzuen sektoreak du ondarearen ehunekorik handiena, % 49,1, enpleguaren % 64,8rekin. Azkenik, eraikuntzak aktiboaren % 11,0 biltzen du, enpleguaren % 8,4rekin.

Aktibo korrontearen eta pasibo korrontearen aldea, **maniobra-funtsa**, positiboa da eta 22.384 milioi eurotan zenbatu da (aktibo osoaren % 11,3), eta 2013koa baino % 4,5 handiagoa da. Horrek esanahi du behar beste baliabide sortzen dela zorrei epe laburrean erantzuteko (epe laburrera eska daitekeena), aurreko urtean baino hein handiagoan. Enpresa-sektoreen arabera balantze-egitura desberdinen ondorioz, Eraikuntzaren sektoreko enpresen maniobra-funtsa enpresa horien aktiboaren % 30,3 da eta Industria sektorearen kasuan % 8,3 da eta Merkatuko zerbitzuen sektorearen kasuan % 9,5.

Oharra: (1) Sektore horrek hainbat motatako zerbitzuak barnean hartzen ditu hala nola garbitegiak, ile-apaindegiak edo ehorztetxeak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

[Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuaren datu-bankua](#)